13/09/14

Tirada:

Sin datos OJD Difusión: Sin datos OJD

Página: 14

Sección: REGIONAL Valor: 1.825,00 € Área (cm2): 289,3 Ocupación: 31,2 % Documento: 1/1 Autor: GARA | BILBO Núm. Lectores: 69000

Deustuko lizentziatuen langabezia tasa lau puntu txikiagoa dela dio errektoreak



Deustuko Unibertsitatearen kurtso berriaren hasierako ekitaldi solemnea.

luanan RUIZ I ARGAZKI PRESS

GARA | BILBO

Datu itxaropentsu batekin eman zion hasiera kurtsoari Jose Maria Guibert Deustuko Unibertsitateko errektoreak: Lanbideren azken txostenak dioenez, bertan lizentziatu direnen artean Euskal Unibertsitate Sistemako batez bestekoa baino lau puntu txikiagoa da langabezia tasa neurtutako azken urtean.

Unibertsitate honek gizarteari egiten dion ekarpen zientifikoari dagokionez, iaz %0,8tik %5era igaro zela jakinarazi zuen. Deustuko Plan Estrategikoak ere ongi funtzionatu duela azaldu zuen, hiru urtetan %81 bete baita.

Bere hitzaldian, Guibertek gogoan izan zuen Hodei Egiluz Anberesen desagertutako

Lakuaren lehentasuna

Errektorearen ondoan egon ziren doktoreak, baita instituzioetako ordezkari ugari ere, Iñigo Urkullu lehendakaria tartean. Honek agindu zuenez, «hezkuntza da eta izango da Lakuako Gobernuaren lehentasuna», eta Unibertsitate Plana aurten onartuko da.

Deustuko Unibertsitateak bezala, Nafarroakoak ere ateak ireki zituen atzo, 11.000 ikasle baino gehiagorekin eta arte museo berria inauguratzeko erronkarekin. Alfonso Sanchez-Tabernero Nafarroako Unibertsitateko errektoreak nabarmendu zuen kurtso hau ikerketa zentroentzat ere hagitz garrantzitsua izanen dela. Donostiako campusean dagoen CEIT, Kultura eta Gizarte Institutua (ICS), Nutrizioko Ikerketa Zentroa, Osasun Tropikalaren Institutua eta Ingeniaritza Biomedikoko Zentroa aipatu zituen.